


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2006KO ABENDUA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,5 igo ziren 2006ko abenduan

2006. urte osoan %6,2 igo dira eraikuntzako kostuak

2006ko abenduan, eta azaroarekin alderatuta, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,5 igo zen EUSTATen datuen arabera. 2006. urte osoko tasak %6,2 igoera izan zuen 2005eko abenduaren aldean.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2006



Iturria: EUSTAT

Urteko aldian (2006ko abendua, 2005eko abenduaren aldean), lan-eskuaren kostua %5,3 handitu da eta lehengaien kostuak, berriz, %6,6.

Abenduan Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Eraikuntzaren atalean %0,7ko igoera egon zen aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilaren atalean lehengaien kostuak %0,6 igo ziren. Azpisektore bien urteko bilakaeran ikusten denez, biek gora egin dute baina indar ezberdinez: eraikuntzako lehengaien kostuak %6,9 hazi ziren, eta obra zibilekoak, berriz, %5,4.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2006an hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: energia elektrikoak (%24,8), burdina eta altzairuak (%22,0), metalezko hoditeriak (%17,3) eta beirak (%12,8). Aitzitik, urteko prezioetan (2006ko

abendua, 2005eko abenduaren aldean) murrizketak izan dituzte petroliotik eratorrien (%-4,8), asfaltozko produktuen (%-2,7) eta zeramika-produktuen (%-0,1) lehengaiek.

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2006ko abendua

GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	126,7	0,5	6,2	6,2
ERAIKINAK	126,8	0,5	6,4	6,4
OBRA ZIBILA	126,2	0,4	5,4	5,4
LEHENGAIEN KOSTUA	124,1	0,7	6,6	6,6
ERAIKINAK	124,4	0,7	6,9	6,9
OBRA ZIBILA	122,6	0,6	5,4	5,4
LAN-ESKUAREN KOSTUA	132,8	0,0	5,3	5,3

Iturria: EUSTAT

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp